

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Udalaren biztanle erroldan ofizioz emango den baja jakinaraztea, interesdunaren bizitokia ezin jakinez**

Interesdunari ezin izan zaio erabaki hau jakinarazi, haren helbidea ezin jakinez; hala, bada, Herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 59.5 artikulua betez (30/1992 Legea, azaroaren 29koa), iragarki hau ALHAOn argitaratuz egiten da ebazpen honen jakinarazpena: "Ikusirik Ekaitz García Santamariaren baja eragiteko izapidetutako espedientea (haren NAN: 78917193F), ez delako egiaz bizi Okondoko Jandiola kaleko 12. zenbakiko bizitokian.

Kontuan izanda Araudiaren 75. artikuluan xedatutakoa eta udalaren biztanle erroldak kudeatu eta berrikusteari buruz udalei eman zaizkien jarraibide teknikoak, alkate lehendakari honek, 2016ko uztailaren 20an, ebatzi du:

Lehenena. Aurkeztutako eskaera izapidetu dadin onartzea, eta ofizioz espedientea irekitzea baja emateko udalaren biztanle erroldan, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik, ustez.

Bigarrenena. Ebazpen hau jakinaraztea erasaten zaionari, udalerrri honetan izan duen azken bizitoki ezagunean, hamabost eguneko epean alegazioak aurkez ditzan edo dagokion bezala inskribatuta dagoela egiazta dezan, edo udalari jakinaraz diezaion bizitoki aldaketa edo egiaz bizi den udalerrria.

Hirugarrenena. Epea igarota ez bada aurkeztu alegaziorik, Okondoko Udalaren biztanle erroldan ofizioz baja ematea, bidegabeki erroldatuta egoteagatik.

Alkate presidentea, Sergio Tato Eguren."

Okondo, 2016ko abuztuaren 18a

*Alkatea*

*SERGIO TATO EGUREN*